

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Hasteko, elkarte bat behar dugu gure aplikazioa publizitzeko eta horrela enpresek aplikazioan lanpostuak sartzeko, gure aplikazioaren berri izatea beharrezkoa da, ezaguna izatea behar dugu, horretarako gure kanpo irudia kontrolatzen duten bazkideak behar ditugu, aplikazio moduan daukagun irudia gure sarrerean zati funtsezkoa baita. Hau da, baliabideak eskuratzeko elkarteak behar ditugu, gure negozio-eredua optimizatzeko.

Aplikazio bat denez, jendea erakartzea behar dugu gure aplikazioa deskargatzeko eta erabiltzeko.

Bazkideak baliabideak ematen dizkiguten beste enpresa batzuk dira, eta beharrezkoak dira gure negozio-ereduak funtziona dezaten. Baliabideak eta jarduerak eskain ditzakete gure enpresak arrakasta izan dezan.

- Langileak behar dituzten enpresak izango dira gure aplikazioaren hornitzaileak, gure aplikazioaren zati funtsezkoa baitira eskaintzen ditugun lanpostuak, beraz baliabideak ematen digute.
- Publizitatea behar duten enpresak ere hornitzaileak izango dira, dirua ordainduko dutelako, eta diru horrekin aplikazioa finantzatzeko dugu.
- Langileak bezeroen arretan, bezeroen zalantzekin edo kexekin laguntzeko, gure bazkideak izango dira, eta gure enpresaren zati funtsezkoa.
- Langileak webgunea funtzionatzen mantentzeko eta negozio-eredua optimizatzeko, gure bazkideak izango dira.